

BESTELAKO XEDAPENAK

LEHENDAKARITZA

1972

EBAZPENA, 2026ko apirilaren 21ekoa, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen zuzendaria, Asociación Claretiana para el Desarrollo Humano «Sortarazi» entitateari Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lankidetzaren Erakundearen aitortzea ematen diona.

Otsailaren 11ko 11/2014 Dekretuaren bidez, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lankidetzaren Erakundearen aitortzea arautu zen, emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzea eta berdintasuna eragozten duten oztopoak kentzea ahalbidetzen duten baldintzak sustatzeko, eta, horretarako, emakumeen eta gizonen aukera- eta tratu-berdintasunaren alde gizaratean eta lan-eremuan sor daitezkeen ekimenak bultzatzeko, bai eta entitateek eremu horretan egiten duten lana aitortzeko ere.

Asociación Claretiana para el Desarrollo Humano Sortarazi entitateak aurkeztutako eskabidea aztertu da, horretarako aurkeztutako dokumentazioarekin batera; aipatu dekretuaren 8. artikuluan aurreikusitako Balorazio Batzordeak baloratu du -9. artikuluan ezarritako balorazio-irizpideak aplikatuta-, zeinak aldeko proposamena egin baitio Zuzendaritza honi. Horiek horrela, egiaztatu da entitateak betetzen dituela aitortzea lortzeko eskatzen diren baldintzak.

Ondorioz, eta 11/2014 Dekretuaren 10. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, bidezkoa da eskatutako aitortzea ematea.

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Asociación Claretiana para el Desarrollo Humano Sortarazi entitateari Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lankidetzaren Erakundearen aitortzea ematea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lankidetzaren Erakundearen aitortzea arautzen duen otsailaren 11ko 11/2014 Dekretuan ezarritako zehaztapen eta baldintzen arabera.

Bigarrena.– Asociación Claretiana para el Desarrollo Humano Sortarazi entitateak, indarrean dagoen bitartean, aitortzen hori erabili ahal izango du egokitzen jotzen dituen irudi korporatiboko elementu guztietan, otsailaren 11ko 11/2014 Dekretuaren 12., 13. eta 14. artikuluen arabera.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen zuzendariari, hilabete epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, zuzenean, Administrazioarekiko Auzien Epaitegi eskudunean, bi hilabete epean, ebazpena EHAAan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko apirilaren 21a.

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen zuzendaria,
MIREN ELGARRESTA LARRABIDE.